



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 6a

Vitoria-Gasteiz, 6 de septiembre de 2016

Lehendakaritza

<p>TOKI BIZIKIDETZAREN ALORREKO ELKARREKIN BONOEN DIRU LAGUNTZAK ONARTU DIRA, GUZTIRA 246.000 EURO</p>

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur **Elkarrekin Bonoen** programan jasotako diru laguntzen deialdiari, toki bizikidetzari dagokion alorrean, hain zuzen, eta diru laguntza hori guztira 246.000 eurokoa izango da.

Gaur onartutako diru laguntza Bakea eta Bizikidetzaren Planaren oinarri eta proiektuen dokumentuan jasotako Elkarrekin Bonoen programaren diru laguntzen hiru lerrotako bat da eta horri aurten 556.000 euro emango zaizkio. Programa hori osatzen duten beste bi lerroak, hau da eskolei zuzendutako hezkuntza alorreko proiektuei eman beharreko diru laguntzak (250.000 euro) eta herritarren parte hartzeari zuzendutakoak (60.000 euro) martxoan onartu ziren eta ondoren egin zen deialdia.

Elkarrekin Bonoen programa ekainean jarri zen abian, bakea, giza eskubideak, indarkeria eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko ahalegin gehigarri gisa. Horrela irabazi asmorik gabeko erakunde baten eta ikastetxe baten, udaletxe baten edo herritarren parte-hartzearen esparruko erakunde baten artean sustatutako proiektuak diruz lagunduko dira, baldin eta Jaurlaritzak sustatu, eta euskal hezkuntza komunitateak izenpetutako **Gizalegez gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoan** oinarritzen badira.

Proiektu horiek ordaintzeko, Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bono sistema bat aurreikusi du horien kudeatze arduraduna baita; alegia, ekarpen ekonomiko bat egingo da, besteak beste, bakearen kulturaren, giza eskubideetan, adiskidetzan edo gatazken konponbidean emandako prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuen justifikatutako ordu bakoitzeko.

Herri Administrazioa eta Justizia

EUSKO JAURLARITZAK ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEHEN PLANA ONARTU DU

- Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz aztertu ditu bere langileak berdintasunaren ikuspuntutik, eta 26 neurri zehatz planteatu du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zuzentzeko.
- Ondorio nagusien artean hauek daude: langile-taldea nabarmen feminizatuta dago, emakumeek gizonek baino lan-ezegonkortasun handiagoa dute, eta emakumeek batik bat, % 87,17, eskatzen dituzte adin txikikoak edo familiakoak zaintzeko bateragarritasun-neurriak.
- Egiatzatu da emakumeen eta gizonen artean % 8,5eko soldata-arraila dagoela, baina ez da zuzeneko diskriminazio baten emaitza, baizik eta emakumeek bateragarritasunaren pisua bere gain hartzean kategoriatu eta soldata txikiagoko lanpostuak betetzearen aldeko hauta egitearen emaitza.
- Gaur onartutako dokumentua Eusko Jaurlaritzaren eta sindikatuen arteko negoziazioaren emaitza da, eta Administrazio Orokorren mahai sektorialak berretsi du.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako gizonen eta emakumeen berdintasunerako lehen plana. Garrantzi handiko lan-dokumentua da, Eusko Jaurlaritzak eta sindikatuek batera prestatu dutena eta administrazio orokorreko mahai sektorialak onartu duena.

Planak 4 urteko indarraldia du. Hasteko, egoeraren diagnostikoa egiten du berdintasunaren ikuspuntutik. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta haren erakunde autonomoetan lan egiten duten ia 7.000 pertsonen ezaugarriak aztertzen ditu. Ondoren, 6 jardun-ardatz zehazten du, eta hautemandako desberdintasuna arintzeko Eusko Jaurlaritzak abian jarriko duen 26 neurri zehatz ezartzen du.

Eusko Jaurlaritzak tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzeko hartutako konpromisoaren parte da gaur onartutako plan hori. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta haren erakunde autonomoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko beste urrats bat da.

DIAGNOSTIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean eta haren erakunde autonomoetan **6.971 pertsonak** egiten du lan une honetan. Berdintasunaren ikuspuntutik, azterketak hiru ondorio nagusi bereizi du:

- ✓ **Euskal administrazio publikoa feminizatuta dago:** 6.971 langileetatik, 4.310 emakumezkoak dira, eta 2.661 gizonetzkoak. Langileen % 61,8 emakumeak dira, eta batez besteko adina 49,40 urtekoa da.
- ✓ **Emakumeek gizonek baino lan-ezgonkortasun handiagoa dute:** bitarteko funtzionarioen % 66 dira (lanpostu finkorik ez dutenak), eta aldi baterako langileen % 64,8 dira.
- ✓ **Ez dago soldata-diskriminazio zuzenik**, hau da, lanpostu berean emakumeek eta gizonek berdin kobratzen dute. **Alabaina, hautematen da prestakuntza eta lanbide-gaitasun bera izanik ere, gizonek baino % 8,48 gutxiago kobratzen dutela, batez ere gizonek baino kategoria eta soldata txikiagoko lanpostuak betetzeagatik.** Lehen arrazoia da, eta arrazoi nagusia, emakumeengan gizonengan baino bateragarritasun-premia handiagoa hautematea: emakumeek egiten dituzte familiakoak zaintzeko bateragarritasun-neurrien eskaeren % 87,14, eta gizonek % 12,8. Bestalde, emakumeek antzintasun txikiagoa dute, 80ko hamarkadan lan-merkatua bera oso maskulinizatuta baitzegoen –izatez, hamarkada horretan sortu ziren administrazio orokorra eta haren erakunde autonomoak eta garai hartan gizonetzkoak sartu ziren batez ere—. Ildo horretan, nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan gaur egun duela 29 urte baino 50.000 emakume gehiago dagoela, lan-merkatuan emakume gehiago baitago.

Egoeraren analisia egitean, hauteman da aldi baterako langileekin zuzentzen ari direla langile finkoen arteko desberdintasunetako asko; izatez, langile horiek geroago sartu dira eta horrek maila guztietan emakume gehiago sartzeko aukera eman du. Emakumeen eta gizonen arteko banaketak bilakaera handia izan du, eta sexu-banaketa orekatuagoa da eta ez hain berezia. Horrenbestez:

- ✓ **Burutzako lanpostuak** oso maskulinizatuta daude karrerako funtzionarioen artean eta oso feminizatuta daude bitarteko funtzionarioen artean.
- ✓ **Lanpostu teknikoak** oso maskulinizatuta daude karrerako funtzionarioen artean eta orekatuta daude bitarteko funtzionarioen artean.
- ✓ **Administrazio-lanpostuak**, berriz oso feminizatuta daude karrerako funtzionarioen artean eta feminizatuta daude bitarteko funtzionarioen artean.
- ✓ **Mendeko lanpostuak** oso maskulinizatuta daude bi funtzionario mota horietan, baina gero eta handiagoa da emakumeen kopurua lanpostu horietan.

Azterketan beste ondorio adierazgarri hauek ere lortu dira:

- ✓ 2007. urtetik, hau da, Eusko Jaurlaritzak **langile publikoentzako berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroak** abian jarri zituenetik, ikastaroetan parte hartu duten pertsonen % 75 emakumezkoak dira.
- ✓ Urte horretatik **antolatu diren lidergo, talde-kudeaketa eta zuzendaritza-gaitasunen arloko ikastaroetan** izena eman dutenen gehiengoa, % 55,24, gizonak dira.
- ✓ 2006. urtetik, hau da, **lanean jazarpen morala eta/edo sexuala** gertatzen den kasuetan jarduteko prozedura eta prebentzio-neurriak arautzen dituen urriaren 4ko agindua indarrean jarri zenetik, ez da izan sexu-jazarpeneko protokoloa aktibatzeke eskaerarik eta, hartara, ez da inoiz jazarpen hori desagerrarazteko esku hartu behar izan.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeria jasan duten emakumezko langile publikoak laguntzeko eta babesteko neurri zehatzak ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean edo haren erakunde autonomoetan lan egiten duen emakume bakar batek ere ez du eskatu laguntza-protokoloa aktibatzea.

6 JARDUN-ARDATZ, 26 NEURRI ZEHATZ

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako gizonen eta emakumeen berdintasunerako lehen planaren bigarren zatiak 6 jardun-ardatz ezartzen du, baita hautemandako desberdintasunak arintzeko abian jarri beharreko 26 neurri zehatz ere:

- ✓ **Antolamenduaren kultura:**
 - Generoaren ikuspegia txertatzea dokumentu eta plan estrategikoetan zein langileen kudeaketako prozesuetan eta eskuliburuetan, baita langileei egiten zaizkien gogobetetasun-inkestetan ere –adierazle guztiak sexuaren arabera bereizita eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezagutzeko eta aztertzeke genero-adierazleak barnean hartuta–.
 - Kudeaketa-organoetako sistema informatikoak, erregistroak eta datu-baseak berraztertzea, eta, hartara, sexuen araberako datu bereziak barnean hartzea memorietan, kontsultetan eta gainerako dokumentazioan. Horrela, sexuen arteko desberdintasuna aztertu ahal izango da.
- ✓ **Langileak kudeatzeko politika:**
 - ✓ Langileak hautatzeko, sartzeko eta hornitzeko prozesuekin lotzen den dokumentazioa berraztertzea eta berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia sistematikoki betetzea (berdinketa hausteko klausulak, ordezkaritza orekatua, gaietan berdintasun-gaiak barnean hartzea, haurdunaldi- eta erditze-egoerak hautespene-prozesuetan).
 - ✓ Lanbide-karreraren bateragarritasun-neurriak erabiltzearen eragina eta jardunaldi-murrizketako edo udako eszedentziako egoeretan langileak ez

ordezkatzearen eragina aztertzea, horrek lankideengan eragina izan ez dezan eta murrizketa-egoeran egotearen presioa saihestu dadin.

- ✓ **Prestakuntza-politika:** administrazioaren prestakuntza-politika aztertzea, planean hautemandako beharrei erantzun dieten ikastaroak proposatzeko (berdintasuna zuzendaritzetako eta buruztetako langileentzat, langileen kudeaketa generoaren ikuspegitik, berdintasunaren kultura, eta abar).
- ✓ **Soldata-politika:** generoaren arabera soldata-arrailean eragina duten faktoreak aztertzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.
- ✓ **Erantzukizun-politika eta lan-denboraren berrantolamendua:**
 - Gida/eskuliburu bat egitea bateragarritasun-neurriei, ordutegiei, eskakizunei, baldintzei eta horiek kotizazioetan, erretiroan eta abar duten ondorioei buruzko araudiarekin.
 - Baterako erantzukizuna sustatzea –langileen beharretara hobe egokitzeko– eta amatasun- eta aitatasun-baimenak parekatzearen eragin ekonomikoa ebaluatzea, iraupen berdinekoak eta besterenezinak izan daitezten.
- ✓ **Prebentzioko eta lan-osasuneko politika:**
 - Genero-ikuspegia txertatzea Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Planean.
 - Sexu-jazarpeneko eta sexuaren ondoriozko jazarpeneko egoeretan jarduteko berariazko beste protokolo bat prestatzea.
 - Prebentzio-zerbitzuko langileak prestatzea, haien egitekoan genero-ikuspegia txertatzeko gai izan daitezten.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen edo sexu-jazarpenaren edo sexuaren ondoriozko jazarpenaren biktima diren emakumeen eskubideak hedatzea, baita haientzat dauden bitartekoak ere, haientzako laguntza-neurriak ezartzeko eta haien lan-baldintzak okerrera ez egiteko.

BERDINTASUNAREN BATZORDE IRAUNKORRA

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako gizonen eta emakumeen berdintasunerako lehen planak ezartzen du Berdintasunaren Batzorde Iraunkorraren sorrera, plan honetan barnean hartzen diren neurriak behar bezala gara daitezten. Batzorde hori kide anitzeko organo parekide tekniko bat izango da, eta berdintasunaren arloko ezagutzak dituzten administrazioako pertsonak eta langileak osatuko dute. Gainera, batzordekide horiek gai horri buruzko prestakuntza espezializatua jasoko dute. Berdintasunaren Batzorde Iraunkorrari esleituko zaizkion egitekoen artean hauek daude:

- ✓ Egin beharreko ekintzen urteko plangintza onartzea, eta ekintza horiek dinamizatzea eta kontrolatzea.
- ✓ Planaren urteko ebaluazioa eta jarraipena egitea.
- ✓ Ebaluazioen txostena egitea, eta plana gauzatzeko eta egiten diren azterketen ondoriozko gomendioak egiteko hautemandako beharren txostena egitea.
- ✓ Administrazioaren barruan beste berdintasun-plan batzuk egiteko prozesuak diseinatzea.

Langile publikoek Berdintasunaren Batzorde Iraunkorrari buruzko informazio guztia eskuratu ahal izango dute, eta batzordea osatzen duten pertsonekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa bat eskura izango dute.

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE
AUTONOMOETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I.
PLANA**

SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

SEXUA	PERTSONA KOPURUA
Gizona	2.661 (% 38,2)
Emakumea	4.310 (% 61,8)

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BANAKETA SAILAREN ETA ERAKUNDEAREN
ARABERA**

SAILA/ ERAKUNDE AUTONOMOA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Lehendakaritza	90	55 (% 61,1)	35 (% 38,9)
Herri Administrazioa eta Justizia	551	372 (% 67,5)	179 (% 32,5)
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakort.	422	228 (% 54)	194 (% 46)
Enplegua eta Gizarte Politika	537	340 (% 63,3)	197 (% 36,7)
Ogasuna eta Finantzak	347	183 (% 52,7)	164 (% 47,3)
Hezkuntza, Hizkuntza Pol. eta Kultura	1.659	1.021 (% 61,5)	638 (% 38,5)
Segurtasuna	769	392 (% 51)	377 (% 49)
Osasuna	855	570 (% 66,7)	285 (% 33,3)
Ingurumena eta Lurralde Politika	231	120 (% 51,9)	111 (% 48,1)
HAEE	120	74 (% 61,7)	46 (% 38,3)
HABE	63	34 (% 54)	29 (% 46)
EMAKUNDE	36	27 (% 75)	9 (% 25)
OSALAN	158	83 (% 52,5)	75 (% 47,5)
EUSTAT	192	134 (% 69,8)	58 (% 30,2)
KONTSUMOBIDE	61	39 (% 63,9)	22 (% 36,1)
LANBIDE	864	628 (% 72,7)	236 (% 27,3)
Lehiaren Euskal Agintaritza	8	6 (% 75)	2 (% 25)
GUZTIRA	6971	4310 (% 61,8)	2661(% 38,2)

SEXUA ETA ADINA

ADINA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
20 urte baino gutxiago	0	0	0
20-29 urte	27	14 (% 0,3)	13 (% 0,5)
30-39 urte	797	560 (% 13)	237 (% 8,9)
40-49 urte	1.972	633 (% 31,1)	1.339 (% 23,8)
50-59 urte	3.512	2.054 (% 47,7)	1.458 (% 54,8)
60 urte eta gehiago	663	343 (% 8)	320 (% 12,0)

SEXUA ETA ENPLEGU MOTA

ENPLEGU MOTA	GUZTIRA	EMAKUMEA	GIZONAK
Karrerako funtzionarioa	3.507	2.107 (% 60,1)	1.400 (% 39,9)
Bitarteko funtzionarioa	1.992	1.315 (% 66,0)	677 (% 34,0)
Guztira	5.499	3.422 (% 62,22)	2.077 (% 33,77)
Lan-kontratudun finkoa	955	552 (% 57,8)	403 (% 42,2)
Aldi baterako lan-kontratuduna	517	335 (% 64,8)	182 (% 35,2)
Guztira	1.472	887 (% 60,25)	585 (% 39,74)
Guztizkoen batura	6.971	4.310 (% 61,8)	2.661 (% 38,2)

KARRERAKO FUNTZIONARIOA	GUZTIRA	EMAKUMEA	GIZONAK
Burutzako lanpostuak	478	191 (% 39,8)	287 (% 60,2)
Lanpostu teknikoak	797	422 (% 52,9)	375 (% 47,1)
Administrazio-lanpostuak eta laguntzaileak	1.669	1.254 (% 78,1)	415 (% 21,9)
Mendeko lanpostuak	321	91 (% 28,4)	230 (% 71,6)
BITARTEKO FUNTZIONARIOA	GUZTIRA	EMAKUMEA	GIZONAK
Burutzako lanpostuak	56	36 (% 65,5)	19 (% 34,5)
Lanpostu teknikoak	986	613 (% 62)	373 (% 38)
Administrazio-lanpostuak eta laguntzaileak	751	581 (% 77)	171 (% 23)
Mendeko lanpostuak	193	82 (% 42,5)	111 (% 57,5)

LAN-KONTRATUDUN FINKOA	GUZTIRA	EMAKUMEA	GIZONAK
Burutzako lanpostuak	38	12 (% 31,57)	26 (% 68,42)
Lanpostu teknikoak	321	196 (% 61)	125 (% 39)
Administrazio-lanpostuak eta laguntzaileak	365	190 (% 52)	175 (% 48)
Mendeko lanpostuak	42	22 (% 52,38)	20 (% 47,61)
ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUDUNA	GUZTIRA	EMAKUMEA	GIZONAK
Burutzako lanpostuak	7	3 (% 42,85)	4 (% 57,14)
Lanpostu teknikoak	261	201 (% 77)	60 (% 33)
Administrazio-lanpostuak eta laguntzaileak	215	105 (% 49)	110 (% 51)
Mendeko lanpostuak	28	23 (% 82)	5 (% 18)



ESKATUTAKO JARDUNALDI-MURRIZKETAK, SEXUAREN ARABERA

MURRIZKETA-MOTA	Murr. kop.	EMAKUMEAK		GIZONAK	
		Murrizketa kopurua	%	Murrizketa kopurua	%
Adin txikikoen legezko zaintza	1.041	941	% 90,4	100	% 9,6
Boluntarioa	263	225	% 85,6	38	% 14,4
Mendeko pertsonen legezko zaintza	142	115	% 81	27	% 19
Ikasketa ofizialak	43	38	% 88,4	5	% 11,6
Norberaren gaixotasuna	10	5	% 50	5	% 50
Hauteskunde-karguaren egitekoak betetzea	2	1	% 50	1	% 50
GUZTIRA	1.501	1.325		176	

SOLDATA-ARRAILA SEXUAREN ARABERA

ENPLEGU ZERRENDA	Pertsonak guztira	Emakumeak		Gizonak		Soldata-arraila
		Kop.	Batez b. soldata garbia	Kop.	Batez b. soldata garbia	
Karrerako funtzionarioa	3.659	2.185	2.063,04€	1.474	2.301,03€	-237,99€ (% 10,34)
Bitarteko funtzionarioa	1.928	1.296	1.885,15€	632	2.010,04€	-124,89€ (% 6,21)
Lan-kontratudun fink.	794	396	1.915,41€	398	2.032,93€	-117,52€ (% 5,78)
Aldi b. lan-kontratud.	599	393	1.805,94€	206	1.781,85€	24,08€ (% 1,35)
GUZTIRA	6.980	4.270	1.971,69€	2.710	2.154,33€	-182,63 (% 8,48)

Enplegu eta Gizarte Politikak

LANGILEEN KONPETENTZIAK ETA PRESTAKUNTZAK HOBETZEKO TREBAKUNTZARAKO LAGUNTZEN URTEKO DEIALDIA EGIN DU LANBIDEK

Gobernu Kontseiluak baimena eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek trebakuntzako ekintza estrategikoak burutzeko laguntza ekonomikoen inguruko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdia argitara emateko.

Lanbidek 4,3 milioi euro bideratuko ditu, langileen konpetentziak eta prestakuntzak hobetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek programatutako trebakuntza-ekintzak finantzatzeko laguntzetarako.

Hobetuz, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa arduratuko da bere hiru lurraldeetako egoitzetan egin beharko diren eskaerak kudeatzeaz eta bideratzeaz. Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Lanbideren Zuzendari Nagusiaren Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Hobetuzek eskaera horiek aztertuko ditu, hauen balorazio teknikoa egingo du –deialdian aurreikusitako irizpideak kontuan hartuta– eta aurkeztutako laguntza-eskera bakoitza, osorik edo partzialki, ukatzeko edo onartzeko behar diren proposamenak egingo ditu. Ondoren, proposamen horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko dizkio, honek dagokion erabakia har dezan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

29,8 MILIOI 2016-2017 IKASTURTEAN EUSKALTEGIEN JARDUERA FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluk gaurko bileran onartu ditu, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, HABEren bi deialdi, 2016-2017 ikasturtean euskaltegien jarduera finantzatzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituztenak. Euskaltegi publiko zein pribatu homologatuentzako deialdiok 29.879.025 euroko diru-kopurua dute orotara.

11,6 milioi udal euskaltegientzat. Deialdietan lehenak 11.604.025 euroko diru kopurua du, eta udal euskaltegiek 2016-2017 ikasturtean emandako ikastaroen finantzaketarako laguntzak arautzen ditu. Euskaltegiok HABEren erregistroan horrela sailkaturik egon beharko dute.

18,27 milioi euskaltegi pribatu homologatuentzat. Bigarren deialdiak berriz, 18.275.000 euroko kopurua du, eta euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2016-2017 ikasturteko euskara ikastaroengatik esleituko zaizkien diru-laguntzak arautzen ditu. Euskaltegi hauek ere HABEren erregistroan sailkaturik egon beharko dute.

Diruz lagundu ahal izango dira euskaltegien irakaskuntza-eskaintza osatzen duten aukera guztiak (ikasturte osoko ikastaroak, udakoak, barnetegietakoak, maila burutzeko ikastaroak, profesional taldeentzako ikastaro bereziak...), baldin eta taldeen osaketarako HABEK ezartzen dituen irizpideak betetzen badituzte. Eskerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2016ko azaroaren 7an amaituko.

Egun, diru-laguntza hauen onuradun izan daitezkeen 103 euskaltegi daude Euskadin: 39 udal euskaltegi publiko, eta 64 euskaltegi pribatu homologatu. Guztien artean, 35.000 ikasle inguru izan dituzte 2015-2016 ikasturtean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

760.000 EURO GAILU DIGITALAK EROSTEKO DIRU-LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2016-2017ko ikasturtean gailu digitalak erosteko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Gailu horiek Euskadiko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabiliko dituzte ikasgeletan. Deialdi honek 760.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, 2016-2017 ikasturte honetan Sare_Hezkuntza Gelan sarean dauden ikastetxe publiko edo itunpekoetako Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergo ikasleek; ikasle horiek beka baten onuradun izan beharko dute, ikas-materialaren osagaian, 2015/2016ko ikasturteko beka-deialdian.

Gainera, diru-laguntza eskatu duten dispositibo digitalak bat etorri beharko du ikastetxeak eskatzailearen talde guztiarentzat aukeratu duenarekin, beti ere Aginduak zehazten dituen ezaugarri teknikoak betez (pantailaren tamaina, memoria gaitasuna eta sistema eragileari dagozkion ezaugarriak) . Gailuak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratua beharko du izan. Ikasle bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 200 eurokoa izango da gailua erosteko.

Sare_Hezkuntza Gelan proiektuak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesurako material eta baliabide digitalak sortzea bultzatzen du, horiek ikasgelan erabiltzea, hori guztia gauzatu ahal izateko beharrezko den formazio teknologiko eta pedagogikoa ematearekin batera.

237.000 EURO EUSKAL ETXEETAKO EUSKARA IKASTAROETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Euskal Etxeei esleituko zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen Ebazpena onartu du. Ebazpenaren xedea da, 2016ko urria eta 2017ko iraila bitarteko euskara ikastaroengatik Euskal-Etxeei diru-laguntzak ematea.

Xede horretarako 237.000 euro bideratu dira. Diru-laguntza eskatu nahi duten Euskal Etxeek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistroan inskribatuta egotea, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako HABEk ezarritako curriculum a izatea jardueren erreferente, astean gutxienik 3 eskola-ordu ematea eta gutxienik talde bakoitzak 6 ikasle izatea (eta batz bestea, gutxienik 8 ikasle taldeko, talde guztien artean)

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

170.000 EURO AGIRITEGI EZ PUBLIKOENTZAT

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, agiritegi ez publikoen antolaketa, zabalkunde eta digitalizaziorako diru-laguntzak arautzen dituen Agindua onartu du.

Aginduak, diru-laguntzatan 170.000 euro emateko araubidea ezartzen du, ondorengo programak garatzeko: artxibo-agiri, artxibo-funts nahiz agiri-bilduma ez publikoen programak, beti ere euskal Agiri Ondarea osatzen badute. Programak, gainera, helburutzat izan beharko du artxibo-funtsak antolatzea eta agiritegien tratamendua hobetzea, aurrez datu base batean jasotako artxibo-funtsak digitalizatzea, informazioa zabaltzea eta Badator informazio sisteman integratzea.

Deialdi honi esker, bestela eskuragarri egongo ez liratekeen hainbat artxibo-funts integratu dira sare publikoetan. Era berean, zenbait artxibo ez publiko Euskadiko Artxibo Historikoan uztea ere ahalbidetu du deialdiak. Honela, Euskadiko Artxibo Historikoa arduratzen da hauen zaintzaz eta herritarrentzat irisgarri ipintzeaz.

Ingurumena eta Lurralde Politika

ANA OREGIK EUSKADIRAKO BIODIBERTSITATE ESTRATEGIA BERRIA AURKEZTU DU EUSKO JAURLARITZAKO KONTSEILUAN

- Euskadik bere natura babestuko du.
- “Gure ondare naturala babesteko, zaintzeko eta berreskuratzeak hazkunde ekonomikoa eta enplegua, elikagaien eta uren segurtasuna eta bizi-kalitatea sustatuko ditu”.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburu **Ana Oregik** *Euskal Herrirako Biodibertsitate Estrategia 2030* aurkeztu dio Iñigo Urkullu Lehendakaria buru duen gobernuari. Aipatu ibilbide-orriak Euskadiko natura ondarearen kontserbazio-egoera hobetuko du erakundeen eta biztanleriaren artean partekatutako erantzukizunaren eta ekosistemak balioan jartzearen bidez.

“*Txingurriak behar ditugu bizirauteko, baina beraiek ez gaituzte ezertarako behar*”. Harvardeko Medikuntza Eskolako Osasun eta Ingurumenerako Munduko Zentroko Wilson irakaslearen esaldi horrek lurreko espezieek eta ekosistemek osatzen duten biodibertsitatearen garrantzia agerian uzten du. Ekosistema osasuntsuek ura garbitu, airea araztu, gure zorua zaindu, klima arautu, nutrienteak birziklatu eta elikagaiak eskaintzen dizkigute. Lehengaiak eta sendagaienezako baliabideak eskaintzen dituzte. Zibilizazio guztien oinarria dira, bai eta gure ekonomien sostengu ere. Oso erraza da: ez dugu bizitzerik “ekosistemen zerbitzu horiek” gabe. Gure natura kapitala delakoa da”, adierazi du **Ana Oregik**.

“Gure ondare naturala babesteko, zaintzeko eta berreskuratzekeo xedea lortzeko hazkunde ekonomikoa eta enplegua, elikagaien eta uren segurtasuna eta bizi-kalitatea sustatzen ditu. Euskadirako Biodibertsitate Estrategiak hemendik 2030era arte aipatu xede hori lortzen lagundu digulako ustea dugu”, azpimarratu du Oregik.

Ingurumen estrategia honen gauzatzearekin lortu nahi den xedea da “Euskadiko naturaren kontserbazio-egoera hobetzea, bere narriadura geldituz eragile guztiek partekatuko duten erantzukizunari esker; aldi berean, biztanleriak naturaren ekosistemen zerbitzu-aberastasunak **gizakion ongizateari** egiten dion ekarpena baloratuko du”. Aipatu xedea lortzeko, lau esku-hartze eremu nagusi jorratuko dira: ekosistemen babesa eta berreskuratzea; **Europako Natura 2000 Sarea** bultzatzea; naturaren kultura eta ezagutza sustatzea; eta eraginkortasuna eta efizientzia lurraldearen eta natura ondarearen kudeaketan.

Plangintza-instrumentu hau osatzeko Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen, Foru Aldundien, Udalsarea21eko udalerrien eta, orokorrean, euskal gizartearen

laguntza izan dugu. Partaidetza-prozesu horren mugarri nagusia Biodibertsitateari Buruzko Gizarte Foroa izan da, otsailean egin zena Bilbon. Bertan, erakunde publikoetako, inplikaturiko entitatetako eta arlo akademikoko ehun eragile baino gehiagok dokumentu honek jorratu beharko lituzkeen lehenetsuen inguruan eztabaidatu zuten.

Euskadik biodibertsitate garrantzitsua agertzen du Europa mailan. Ana Oregiren esanetan, "gure lurraldeak 2500 espezie ezberdin hartzen ditu; Britainia Handiak baino askoz ere gehiago, esaterako, 1300 baitituzte bakarrik han. Euskadik Europar Batasuneko lurraldearen % 1a hartzen badu ere, Europa mailan interesgarriak diren habitaten % 35 hartzen du, animalia-espezieen % 21 eta landare-espezieen % 2. Halere, egun arte egindako aurrerapenak direnak direla, Euskadiko habitat interesgarrien % 75a kontserbazio-egoera kaskarrean dago, EBak agertzen duen portzentaje berbera. Espezieen kasuan, inbentarioan sarturiko espezieen % 4a mehatxupean dago. European, ugaztunen % 42a desagertzeko arriskuan dago, hegaztien % 15arekin eta tximeleten eta narrastien % 45arekin batera".

Hori guztiarengatik, "Euskadirako Biodibertsitate Estrategia 2030 berria Europako Natura 2000 Sarean sartutako Euskadiko 55 espazioak ezartzeko prozesua bukatu eta gero onartu da; horrek esan nahi du gure lurraldearen % 23a ingurumena babesteko ekimen baten mende dagoela", adierazi du Ingurumen Sailburuak.

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK INGURUMENAREN ARLOAN BORONDATEZKO PROIEKTUAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUEI ZUZENDURIKO DIRU-LAGUNTZAK IRAGARRI DITU

Kontseilu Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko urtarrilaren 1a eta 2017ko martxoaren 31 bitartean ingurumenaren arloan borondatezko proiektuak garatuko dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak iragarri ditu. Ingurune fisikoan ekintza zuzenak aurreikusten dituzten proiektuak izango dira, ingurumen arloko boluntarioek era librean garatuko dituztenak, altruistak eta irabazi asmorik gabekoak eta onuradun diren erakundeek koordinatuko dituztenak, ingurumena hobetu eta babesteko xedearekin.

Natura ingurunean: ekosistemen (ibaiak, basoak, kobazuloak, gailurrak, itsasertza, hezeguneak eta beste habitatak) kontserbazioa; paisaiaren mantentze eta berreskuratzea; animalia- eta landare-espezieen inguruko ikerketa-atazetan laguntzea eta natura ingurunearen erabilera publikoa. Ez dute diru-laguntzarik jasoko espezie inbaditzaileekin akabatzeko proiektuak, aginte eskudunek onartu duten kontrol-plan batek aipatu proiektuak boluntarioen bidez egin daitezkeela espresuki adierazi ezean.

Babestutako natura espazioetan, baliabideak mantentzeko laguntza (bidezidorrak, ekipamenduak,...). Hirietako ingurugiroan, hiriko ingurugiroaren kalitatea hobetzea, hirietako beren aldirietako berdegunetarako ekintzak, hirietako jasangarritasuna sustatzea (mugikortasuna, hondakinak, energia, kontsumoa, bai eta beste edozein esku-hartze eremu), herrietako eta hirietako animaliak eta landareak ezagutzeko ikerketa-atazetan laguntzea. Bertako landare-barietateen eta espezieen kontserbazioaren alorretan, hazi-bankuen edo haztegien bidez. Eta mehatxupean dauden animalia- eta landare-espezieen eta beren habitaten ikerketa-atazetan laguntzea; aipatu esku-hartzea zientzien edo ikerketaren alorretan entzute handia duten erakunde edo pertsonekin egin beharko da.

Xede horretarako, ehunda hamabi mila (112.000) euro esleituko dira gehienez. Eskaera edo adierazpen erantzuleak egiteko jarraibideak eta beste eredu guztiak ondoko egoitza elektronikoan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2016/volamb/y22-izapide/es

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK JOSE ANTONIO GALERA IZENDATU DU GORBEIAKO PARKE NATURALEKO PRESIDENTE

Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatu Jose Antonio Galera izendatu du Gorbeiaiko Parke Naturaleko Presidente, Marta Ruiz Cerrilloren ordez.

GOBERNU KONTSEILUAK LANKIDETZA-HITZARMEN BERRIA BAIMENDU DU BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREKIN, BAT-BARIK-MUGI TXARTELEN ELKARRERAGINTASUNA BERMATZEKO BILBOKO METROAN

Gobernu Kontseiluak Bizkaiko Garraio Partzuergoari diru-laguntza zuzena ematea onartu du. Bere gehienezko kopurua 313.698,00 eurokoa izango da; xedea, Bat-Barik-Mugi txartelen elkarreragintasuna bermatzea Bilboko Metroan.

Presidencia

APROBADAS LAS AYUDAS DE BONOS ELKARREKIN EN EL ÁREA DE CONVIVENCIA LOCAL POR UN TOTAL DE 246.000 EUROS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde hoy a la convocatoria para este año de la línea de ayudas recogida en el programa **Bonos Elkarrekin** correspondiente al ámbito de la convivencia local, por un total de 246.000 euros.

La aprobada hoy es una de las tres de ayudas previstas en el programa de Bonos Elkarrekin, enmarcado en el documento de Bases y proyectos del Plan de Paz y Convivencia y al que este año se destinarán un total de 556.000 euros. Las otras dos líneas de subvenciones que completan este programa, es decir, las ayudas a proyectos en el ámbito educativo dirigidos a los centros escolares (250.000 euros), y las destinadas a proyectos en el ámbito de participación ciudadana (60.000 euros) fueron aprobadas el pasado mes de marzo y posteriormente convocadas.

El programa de Bonos Elkarrekin fue puesto en marcha como una iniciativa de refuerzo adicional en la promoción de la paz, los derechos humanos, la no violencia y los principios democráticos, con el objetivo de apoyar y subvencionar proyectos conjuntos entre una entidad sin ánimo de lucro y un centro educativo, un ayuntamiento o una institución del ámbito de la participación ciudadana, que tengan como base el **Compromiso Socio-Educativo Gizalegez**, promovido por el Gobierno y suscrito con la comunidad educativa vasca.

Para la financiación de estos proyectos, la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, encargada de su gestión, ha previsto un **sistema de bonos** que consiste en una aportación económica por hora justificada de servicios de formación o dinamización en materias tales como cultura de paz, derechos humanos, solidaridad con las víctimas, reconciliación y resolución de conflictos.

Administración Pública y Justicia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL PRIMER PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

- Es la primera vez que el Gobierno vasco analiza la situación de su plantilla desde el punto de vista de la igualdad y plantea hasta 26 medidas concretas para corregir la desigualdad entre mujeres y hombres.
- Entre las principales conclusiones: la plantilla está claramente feminizada, las mujeres sufren una mayor inestabilidad laboral que los hombres y son las que, en un 87,17%, solicitan medidas de conciliación para el cuidado de menores o familiares.
